

AITARI LOTSA

**«Aitari lotsa dautsonari pekatuak yakoz parkatuko»
(Ikastuna, 3, 3)**

Biotza doart gorapen jario
Zure naia, Jaun, atsegin izanik;
aita goretsi, Zut nai dozularik,
orixe da, bai, nire zorabio.

Zure naz bildur, eta aintzat, dot aita,
berak bait nozu aragiz jantzia,
ta aren bedeinkak dakarst poz-argia;
egite ta itzez dautsot itzal auta.

Aren aulkeriz ez naz iñoz poztu,
ta zartzaroan samin sista barik
nai neuke seme zurrian babestu.

Adimena mee? Gozo dot zainduko,
srtzezko zorra leial ordaindurik,
aitari egin ona ezpaita aztuko.

P A D A R R A

Bide pendizetik dei
egin neutson zakar:
— Itobear antzean
zer, zer dozu, padar?

Aizea puzka eme
loreño artean...,
zurtasunez txakurra
padarra ikustean.